



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2016.07.21ean EGINDAKO
BILKURA BEREZIKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
MARIA UBARRETXENA CID
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
MIKEL BIAIN BERRAONDO

ANTZUOLA
BERGARA
BERGARA
ARRASATE
ARRASATE
ELGETA
ESKORIATZA
OÑATI

ETORRI GABEAK

JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2016ko uztailaren 21ean, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla, ondorengo gaiak tratatzeko.

1.- Mankomunitateko hainbat udalerrietako argiteri publikoan energia aurrezteko LED luminariak eta ekipoak hornitzeko eta instalatzeko kontratazio espedientea onartzea eta esleitze prozedura irekitzea

Mankomunitateko hainbat udalerrietako argiteria publikoan energia aurrezteko LED teknologiako argiak eta ekipamenduak hornitzeko eta instalatzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

Hurrengo gaiarekin hasi aurretik, Hondakinen Kudeaketa Batzordeko lehendakariak kontu-hartzaileari esaten dio GHK erraustegiko pleguei eta Debagoieneko Mankomunitatearen aukerei buruz berak bidalitako txostena bere eskuduntzen kanpo dagoela. Gai hau politikoa izanik, horrelako txostenak kaltea besterik ez dutela egiten.

Kontu-hartzaileak erantzun dio bere eskuduntzen barruan dagoela Gobernu Juntak tratatuko duen eta eragin ekonomikoa duen gai bati buruzko txostena egitea.

2.- 2016ko uztailaren 28an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Nagusian tratatuko diren gaiak

Datorren uztailaren 28an egingo den Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Nagusirako gai-zerrendan, besteak beste, sartuta dagoen "Obra publikoko emakida erregimenean, Gipuzkoako Ingurumen Gunea 1. Fasearen diseinua, erakuntza, finantzaketa, ustiaketa eta mantentzea esleitzeko kontratazio-espedientea aztertu eta hori onartzea, hala badagokio. Gastua onartzea, hala badagokio. Esleipen-prozedura abian jartzea" puntua dela eta, Hondakinen Kudeaketa Batzordeko lehendakariak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziolari ondorengo eskaera luzatzea proposatu dio Gobernu Juntari:



“Debagoieneko Mankomunitateak, Kontsortzioko kide bezala, gai honi buruz bidalitako dokumentazio ugaria aztertu ondoren, guztiz beharrezkotzat jotzen du urte honen barruan (2016an), lehenbailehen, Kontsortzioak erabakitzea aipatu kontratuaren 35 urteko epean Kontsortzioko kideek ordaindu beharreko zerbitzuaren tarifak zehazterakoan ze irizpide erabiliko dituen, kontuan izanik kontratu honen lizitazioarako kreditua bi finantzazio iturriren mende dagoela, eraikinerako Foru Aldundiaren ekarpena, eta Kontsortzioko kideek zerbitzuagatik ordaindu beharreko tarifen diru-bilketa.

Erabili beharreko irizpideak Kontsortzioko estatutuen 28 artikuluan jasotako printzipioetan oinarritu beharko dira, hauek dira, tarifa bakarraren printzipioa, tarifaren legezkotasunaren printzipioa, erantzukizun printzipioa proiektuaren finantzaketarako, eta tarifaren diskriminazio positiboaren printzipioa; argi utziz etorkizuneko tarifak zerbitzuaren demandaren arabera izan beharko direla (tonako kostea fakturazio unitate bezala), Europar Araudiak dioenaren arabera. Kontsortzioko kideek ordaindu beharreko tarifak gaikako bilketa mailaren arabera izan beharko dira.”

Eztabaida luze baten ondoren, lehendakariak botazioa planteatu du, ondorengo emaitzarekin:

- 6 boto proposatutako eskaera Kontsortzioari luzatzearen alde. (Unai Elkoro, Maria Ubarretxena, Juan Karlos Garitano, Elena Lete eta Jose Ramón Zubizarreta).
- 3 ezezko boto (Mikel Biain, Iraitz Lazkano eta Beñardo Kortabarria), ulertzen baitute eskaera hau ez dela nahiko, Mankomunitate honen eskakizuna haratago joan beharko litzatekeela; azpiegitura honen beharra bera gaitzesten dute, Debagoieneko Mankomunitateak bere bide propioa jorratzeko aukera mahai gainean jarritz.

Beraz, onartu da Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari goian jasotako eskaera luzatzea.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 13:00etan, bukatutzat eman da bilkura.